



2026

1. hiruhilekoa

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA
Ekonomia Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO
Dirección de Economía

EAEKO EKONOMIAREN

HIRUHILABETEKARIA 2026

1.HIRUHILEKOA

Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke : <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2026ko martxoa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1–01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea eta itzulpena: Koiuntura eta Aurreikuspen Ekonomikoen Zerbitzua
Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

ISSN: 3101-1578 (online bertsioa)

EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA	3
EKONOMIAREN INGURUNEA	5
EAE-KO EKONOMIA	9
Ekoizpena eta enplegua	9
Barne eta kanpo eskaria	14
Prezioak, soldatak eta kostuak	20
Arlo publikoa	25
Arlo finantzarioa	27
Aurreikuspenak	32
Energiaren prezioen eragina euskal ekonomian.	42

Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I)	5
Munduko ekonomia. BPGa (II)	6
Enpleguaren bilakaera.....	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera	31
2026ko eta 2027ko aurreikuspenak (I)	40
2026ko eta 2027ko aurreikuspenak (II)	41
Aldagai energetikoen bilakaera.....	43
Shock energetikoak eragindako jarduera-adar nagusiak, produktuaren arabera	45
Petrolioaren prezioen shock baten eraginaren dinamika	46

Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak	9
Jardueraren adierazleak	10
Eskariaren aldagaiak.....	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak	15
Esportazioak produktuen arabera.....	16

Esportazioen helmuga.....	17
Inportazioen jatorria	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea	22
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	24
Lan kostuak	24
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abendua).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I)	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II)	30
Ekonomia aurreikuspenak.....	33
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2026ko otsaila)	36
Aurreikuspenak egiteko hipotesiak (2026ko martxoa)	37
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2026ko martxoa).....	38

LABURPENA

EAEko ekonomia urte arteko %2,4 hazi zen 2025eko laugarren hiruhilekoan, eta horri esker, %2,3ko batez besteko aldakuntzarekin itxi zen ekitaldia. 2024ko gorakada baino pixka bat txikiagoa bada ere, gorakada nabarmena da oraindik ere, eta koherentea nazioarteko ingurune bereziki konplexu batekin. Hazkundeak dinamismoa, iraunkortasuna eta oreka uztartu zituen: euroguneko batez bestekoa aise gainditu zuen, urtean zehar goranzko bideari eutsi zion eta kontsumo pribatuan eta kapital eraketa gordinean proportzioan oinarritu zen.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriak Europako beste ekonomia batzuetan ikusten diren tentsio berberak islatu zituen berriro, sektore estrategikoei buruzko ziurgabetasunak, polarizazio geopolitikoak eta politika protekzionisten hedapenak baldintzatuta. Hala ere, 2025ean bilakaera moderatua izan zuen, baina egonkortzera bideratua, eskaerak berreskuratzeari eta kostu eta fluxu logistiko batzuen normalizazioari esker. Bi hiruhileko ia lauen ondoren, sektoreak gora egin zuen argi eta garbi laugarren hiruhilekoan, %0,9ra arte, eta, horri esker, urtea %0,4ko batez bestekoarekin itxi zen. Manufaktura industriak antzeko patroia izan zuen, urtearen lehen erdian aldaketa txikia izan zuen eta amaieran %0,8ko gorakada izan zuen, aurreikuspenen hobekuntza mailakatua adieraziz.

Eraikuntza aurreko ekitaldietan ikusitakoa baino askoz sendotasun handiagoa izateagatik nabarmendu zen. %5etik gorako tasak izan zituen udan, eta %4,9ko hazkundeari eutsi zion laugarren hiruhilekoan. Bai Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen hazkundeak (%6,3), bai afiliazioaren igoerak (%2,6) sektorearen sendotasuna eta jarduera osoari egiten dion ekarpena berresten dute.

Zerbitzuak izan ziren berriz ere hazkundearen eragile nagusia. 2025ean, oro har, balio erantsia %2,8 igo zen, urtean zehar erritmo egonkorra izan zuen eta hiru jarduera bloke handietan oinarritu zen. Merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioaren indarra nabarmendu zen, %3,3ko aurrerapenarekin, aurreko ekitaldikoa baino nabarmen handiagoa. Sektore publikoari gehien lotutako adarrek ere portaera sendoa eta jarraitua izan zuten, urte osoan %2tik gorako hazkundeekin.

Eskariaren aldetik, kontu ekonomikoek berresten dute hazkundeak eutsi egin ziola, batez ere, barne eskariaren sendotasunari. Urtearen hasieran ikusitako jarraibidea urtea itxi arte luzatu zen. Kontsumoaren eta inbertsioaren portaera egonkorra eta sendoa izan zen, aitzitik, kanpoko arloaren portaera aurreko etapetan baino txarragoa. Barne eskariak aurrerapen dinamikoa eta jarraitua erakutsi zuen: tasak %2,4tik %3,2ra igaro ziren urtean zehar, eta, horri esker, 2025a itxi zen, batez beste %2,9ko hazkundearekin. Agregatu horren barruan, azken kontsumoak %2,5 inguruko hazkunde erregularra izan zuen, prezioen moderazioan eta zerbitzu publikoen

egonkortasunean oinarrituta. Bestalde, inbertsioa goranzko profilagatik eta zikloari egindako ekarpenagatik nabarmendu zen. Barne bultzada horrek kanpo sektorearen portaera konpentsatu zuen, laugarren hiruhilekoko hazkundeari zortzi hamarren kendu eta urteko balantzean sei hamarren drainatu baitzituen.

Jardueraren bilakaera positiboa lan merkatura eraman zen, 2025ean enpleguaren %1,4ko hazkundearekin itxi baitzen, aurreko urteko erritmoaren hamarren bat azpitik eta oraindik ere maila sendoetan. Aurrerapen horren ondorioz, lanaldi osoko 14.000 lanpostu baliokide inguru sortu ziren. Hiruhilekoaren profilak hasiera bereziki dinamikoa izan zuen, %1,5eko hazkundearekin lehen hiruhilekoan, eta %1,4 inguruan egonkortu zen urtearen amaierara arte. Laugarren hiruhilekoan, lanpostuen guztizko kopurua milioitik gorakoa izan zen, eta estatistika serie osoko mailarik altuenera iritsi zen, zerbitzuetan kontzentratutako enplegu sorkuntzaren zati handi batekin.

Prezioen arloan, moderazio bideari eutsi zitzaion. BPGaren deflaktorea 2024ko %2,8tik 2025eko %2,6ra igaro zen. Bestalde, KPIa urteko batez bestekoaren %3,0 izan zen, 2024an baino hamarren bat gutxiago, eta euste hori 2026ko lehen bi hilabeteetan luzatu zen.

Egoeraren araberako informazio berrienari eta testuinguru hipotesien eguneratzeari esker, 2026rako eta 2027rako egoera makroekonomikoa zehaztu daiteke. Erdiko agertokia jarraitutasun suposizioetan egiten da, gatazkaren ondoriozko shock gehigarririk gabe. Esparru horretan, BPGa urte arteko %2,2 haziko litzateke 2026ko lehen hiruhilekoan, eta pixkanakako moderazioa izango luke, 2026an %1,9ko batez besteko hazkundera eta 2027an %1,6ra arte. Enplegua %1,0 igoko litzateke 2026an eta %0,7 2027an, langabezia tasa %6,4ra eta %6,2ra murriztuta, hurrenez hurren. Prezioei dagokienez, aurreikusten da BPGaren deflaktorea %2,6 haziko dela 2026an, eta %2,1era jaitsiko dela 2027an.

Osagarri gisa, Ekialde Hurbileko gatazkaren ondorioz energia garestitzeak izan dezakeen eragina ebaluatzeko ariketa espezifiko bat egin da. Analisiak erakusten duenez, petrolioaren eta gasaren prezioen igoera iraunkorrak aldi baterako inflazio presioak areagotu ditzake, eta, luzatuz gero, pixkanaka euskal ekonomiaren jarduerara eta lehiakortasunera eraman. Zuzeneko ondorioak epe laburrean mugatuko lirateke, baina horrek irauten badu, 2027an zehar narriadura handituko litzateke. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak onartutako neurriek eragin horiek partzialki arintzen lagunduko lukete, etxe eta enpresen gaineko presioa murriztuz eta errenta erabilgarriaren galera motelduz. Nolanahi ere, azken irismena gatazkaren bilakaeraren eta energia merkatuen portaeraren araberakoa izango da.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2025eko laugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak hazkunde erritmo egonkorra izan zuen, gorabehera handirik gabe, inflazioaren pixkanakako normalizazioa eta lan merkatuen indarra ezaugarri dituen ingurune batean. ELGAren hazkunde osoa urte arteko %1,8 ingurukoa izan zen, aurreko hiru hiruhilekoetako erregistroen ildotik, eta goraka ari diren ekonomia handiek, berri, tasa askoz handiagoetan aurrera egiten jarraitu zuten. Tentsio geopolitikoek eta merkataritzakoek hor jarraitzen zuten, baina, urte amaierara arte, jardueran zuten eragina nazioarteko merkataritzaren moderazioaren bidez bideratzen zen nagusiki, eta ez eskariaren bat-bateko geldialdiaren bidez.

Ekonomia aurreratuen eta garapen bidean ari direnen arteko dibergentzia zikloaren ezaugarri nagusi gisa mantendu zen. Lehenengoen artean, hazkundeari batez ere kontsumo pribatuan eutsi zitzaion, errenta errealearen hobekuntzan eta historikoki murriztutako langabezia tasetan oinarrituta; aldiz, inbertsioa pisua hartzen joan da hainbat urtez shock kateatuak izan ondoren, kanpo eskariaren azelerazioaren seinale argirik ez dagoen arren. Merkatuek jada deskontatzen zuten 2025aren hasieran hasitako tasa murrizketen zikloaren jarraipena, bai Estatu Batuetan, bai eurogunean, eta horrek finantza baldintzak pixkanaka leuntzen eta inflazioaren normalizazio ordenaturako itxaropena indartzen laguntzen zuen. Garapen bidean ari direnetan, eta bereziki Asian, hazkundeak dinamikoagoa izaten jarraitzen zuen, %4tik gorako tasekin, ELGAren tonu askoz neurrizkoagoarekin kontrastean.


Munduko ekonomia. BPGa (I)

Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina




Iturria: ELGA.

Talde horretan, Txinak %4,5eko urte arteko hazkundearekin amaitu zuen urtea laugarren hiruilekoan. Hedapen patroia hori duela gutxi izandakoa baino motelagoa da, baina ekonomia aurreratu gehienena baino handiagoa. Eskariaren aldetik, kontsumo pribatuak pixkanakako susperraldia erakutsi zuen, etheen ziurgabetasunak eta higiezinaren sektorearen egokitzapenak oraindik ere oztopatuta; aldiz, inbertsioak ahul jarraitu zuen etxebizitza-erakuntzan, eta zertxobait irmoagoa trantsizio energetikoari eta teknologiarik lotutako azpiegitura eta sektoreetan. Kanpoko arloak laguntza eginkizuna bete zuen berriz ere, Asiara eta Europara esportazioak eginez, eta esportazio horiek Estatu Batuetatik etorritako eskari txikiagoa partzialki konpentsatu zuten. India izan zen berriro ere taldearen eragile nagusia, urte arteko %7,6ko hazkundearekin. Kontsumo pribatuak osagai dinamikoena izaten jarraitu zuen, hiri enpleguaren hobekuntzari eta soldata errealean aurrerapenari esker. Inbertsioak oso tasa altuak izan zituen esportaziora bideratutako azpiegiturretan, eraikuntzan eta manufacturetan. Kanpo eskariaren ekarpena apur bat apalagoa izan zen, kapital ondasunen eta sargaien inportazioek gora egin zutelako, baina kanpo saldoa hazkunde sendoarekin bateragarriak ziren mailetan mantendu zen.


Latinoamerikan, Mexiko nabarmendu zen tasa positiboak berreskuratu zituelako aurreko hiruilekoko uzkurduraren ondoren. BPGa %1,8 hazi zen laugarren hiruilekoan, hirugarren hiruilekoan %0,1eko jaitsiera izan ondoren. Horren ondorioz, AEBei lotutako manufaktura jardueran eta AEBetako, Mexikoko eta Kanadako (USMCA) merkataritza-itun berriaren testuinguruan industria birkokapenari lotutako proiektuetan oinarritutako hedapen bidera itzuli zen. Kontsumo pribatua gutxiago hazi zen, erosteko ahalmena moteldu egin zelako eta gastua zuhurragoa izan zelako aurreko hiruilekoan murriztu ondoren; aldiz, inbertsioak tonu hobea erakutsi zuen esportazio eta logistika industriari lotutako segmentu batzuetan.

Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: BEA eta Eurostat

Ekonomia aurreratuen artean, berriz ere Estatu Batuak izan ziren buru, urte arteko %2,0ko hazkundearekin. Kontsumo pribatua (%2,1) sendo mantendu zen lan merkatuaren indarrari eta erosteko ahalmenaren hobekuntzari esker; aldiz, inbertsioak portaera heterogeneoa izan zuen: ekipamendu ondasunetara eta jabetza intelektualera bideratutakoak hazten jarraitu zuen (%8,1), eta etxebizitza-inbertsioak (-%3,5) mugatuta jarraitu zuen. Inflazioak aurrera egin zuen erreserba federalaren helburuarekin bateragarriak ziren mailetarantz (%2,4 urtarrilean eta otsailean).

Japonian, BPGa %0,4 hazi zen laugarren hiruhilekoan, eta 2025eko erdialdean hasitako desazelerazioa luzatu zuen. Kontsumo pribatuak %1,6 egin zuen gora, baina ez zen bultzada argirik eman metatutako erosteko ahalmenaren galeraren testuinguruan. Etxebizitza-inbertsioa berriz ere gogor jaitsi zen (-%4,1), etxebizitza eskaria oso ahulduta dagoelako errenten gaineko presioagatik, materialen aldeaz aurreko garestitzeagatik eta zahartze demografikoaren inaktu iraunkorragatik, eta faktore horiek eragotzi egiten dute sektoreak trakzioa berreskuratzea. Enpresa inbertsioa, aldiz, hazi egin zen (%3,3), modernizazio proiektuetan oinarrituta, baina ez zen nahikoa izan gainerako eskariaren ahultasuna konpentsatzeko. Kanpo eskariak hazkundea murriztu zuen, esportazio apur bat negatiboekin (-%0,3) inportazio dinamikoagoen aldean (%3,5).

Euroaren eremuak, bestalde, %1,2ko urte arteko hazkundearekin itxi zuen laugarren hiruhilekoa, eta horrek berreskuratze eredu jarraitua baina leuna finkatzen du 2024ko erdialdetik. Barne eskariak hazkundearen zutabe nagusia izaten jarraitu zuen, eta inflazioaren moderazioak eta enpleguaren erresistentziak mesede egin zioten kontsumo pribatuari. Inbertsioak, berriz, portaera dinamikoagoa izan zuen, %3,1 inguruko hazkundearekin, aurreko hiruhilekoko baino apur bat txikiagoa, eta jarduera osoari ekarpen garrantzitsua egin zion. Kanpo eskariak partehartze txikia izan zuen. Izan ere, nazioarteko merkataritzak erritmo apalean egin zuen aurrera, Europako industriak oraindik ere handiak ziren energia kostuetara egokitzen jarraitu baitzuen, -nahiz eta 2022ko eta 2023ko mailak baino txikiagoak izan-, bai eta lehia global handiagoko testuinguru batera ere.

Euroaren eremuaren barruan, herrialdeen arteko aldeak aipagarriak izaten jarraitu zuten. Alemanian, kontsumo pribatua sendo mantendu bazen ere (%1,8) eta inbertsioa %0,9 hazi bazen ere (bi hiruhileko positibo kateatuta lehen aldiz 2019tik), kanpo arloaren ahuleziak berriz ere mugatu zuen BPGaren hazkundea (%0,4, azken hiruhilekoen antzekoa). Inportazioen indarrak konpentsatu egin zuen esportazioen susperraldia, tasa positiboetara itzuli baitziren bi urteko beherakadaren ondoren, nazioarteko eskari neurritsuaren testuinguruan eta oraindik bultzada gabeko industria-sektorean.

Frantzian, inbertsioak suspertzea lortu zuen, ia bi urtez etengabeko uzkurdurak izan ondoren, %1,7ko hedapenarekin, aurreko hiruhilekoan hasitako joera positiboa (%1,6) sendotuz. Bestalde, kontsumo pribatuak ere hobekuntza zantzuak izan zituen: aurrerapena apala izan zen arren (%0,3), esanguratsua izan zen aurretik erregistratutako geldialdiarekin alderatuta (%0,0). Hala, analisiak erakusten duenez, barne eskariak egonkortasun eta dinamismo handiagoa izan zuen, eta horrek BPGaren susperraldi sendoagoa ekarri zuen, %1,2 hazi baitzen eta urtean zehar ikusitako azelerazioa berretsi baitzuen. Italiak, berriz, %0,8 egin zuen gora, %5,1 hazi zen inbertsioan oinarrituta, eta kontsumo pribatuaren aurrerapen arinena konpentsatu zuen (%0,8). Espainia, azkenik, eremuko ekonomiarik dinamikoena izan zen berriro, %2,7ko hazkundearekin. Kontsumo pribatua %3,1 hazi zen enplegua eta errenta erreala hobetzeari esker, eta gastu publikoa %2,5. Inbertsioak %5,9 egin zuen gora, eraikuntzaren dinamismoak (%7,2) eta tasen murrizketen ondoren finantza baldintza hobekak izateak eutsita.

2026aren hasierari begira, adierazle aurreratuek, hasiera batean, 2025eko bigarren erdian ikusitako joerak luzatzea iradokitzen zuten, hazkunde moderatuarekin, normalizazio faseko inflazioarekin eta etenaldiko diru politikekin, seinale berrien zain. Hala ere, AEBek eta Israelek Iranen egindako eraso bateratuak modu malkartsuan aldatu du agertoki hori, eta ziurgabetasuna nabarmen handitu du. Egun gutxiren buruan, Brent ontziaren prezioa 120 \$/upel baino gehiagokoa izan zen, eta, gerora 100 \$/upel inguruan egonkortu bada ere, hegakortasuna handia da oraindik, eta Ormuzko itsasartetik igarotzeak nahasmendu argiak ditu, kostu logistikoak igo eta energia merkatuei presioa gehitzen dietenak. NDFak eta azterketa zerbitzu nagusiek azpimarratu dute energiaren prezioen gorakada iraunkorrek inflazio globalari hamarren batzuk gehitu diezazkioketela eta hiruhileko gutxitan hazkunde murriztu, eta azken inpaktua, batez ere, gertaeraren iraupenaren arabera izango dela. Christine Lagarderen adierazpen berrienek zuhurtzia eta datuen mendekotasun zorrotzeko mezu bati eusten diote, eta azpimarratzen dute horrelako shock energetiko batek inflazioaren denborazko profila alda lezakeela eta merkatuak 2026rako aurreikusten zituen moneta-politikako erabakiak atzeratu.

Gatazkari lotutako ziurgabetasuna handia da, eta barne hartzen ditu gertakariaren iraupena eta merkataritza eta logistika fluxuen gaineko inpaktuaren intentsitatea, bereziki energiaren mendeko sektoreetan eta hornidura kate globalizatuak dituzten manufaktura adarretan. Epe laburreko ikuspena nabarmen murriztu da, eta edozein prospekzio-ariketek eskaladaren aurretik kontuan hartutakoak baino agertoki-tarte zabalagoa erabili behar du. Hala eta guztiz ere, litekeena da 2026ko lehen hiruhilekoko datuek garapen horiek soilik modu mugatuan islatzea, izan ere, igoera geopolitikoaren eta energia prezioen gorakadaren zati handi bat aurreratuta gertatu da erreferentzia fasean, eta transmisio mekanismoek denbora pixka bat behar dute jarduerara eta azken prezioetara lekualdatzeko. Horregatik, onargarriena da 2026ko lehen hiruhilekoan oraindik nolabaiteko jarraipena izatea 2025eko hazkunde eta inflazio jarraibideekin, eta bigarren hiruhilekotik aurrera hastea argien ikusten gatazkaren ondorio makroekonomikoak, bai jarduera mailan, bai munduko arlo nagusietako politika ekonomikoen konfigurazioan.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiak %2,4ko hazkundera izan zuen 2025eko laugarren hiruhilekoan, urtea aurrerapen iraunkorrekin amaituz, eta Ekonomia Zuzendaritzak aurreikusitakoa baino portaera apur bat hobea berretsiz. Hiruhilekoko kontabilitateak barne trakzio handien duten sektoreetan oinarritutako hazkunde patroia nabarmentzen du, zerbitzuen, ekitaldian zehar erritmo sendo eta egonkorra mantendu zutenak, eta eraikuntzaren rol protagonistekin, inbertsioari lotutako bultzada gehigarria ekarri baitzuen. Industriak, nazioarteko testuinguruaren eraginpean, gorakada nabarmena izan zuen urtearen azken zatian, zenbait hiruhilekotan hazkunde ia laua izan ondoren. Barne portaera hobe honen aurrean, kanpo saldoaren ekarpena hazkundeari kentzen jarraitu zuen, Europako bazkide batzuen ahultasunak eta merkataritza tentsioek baldintzatuta, nahiz eta aurreko ekitaldietan baino osaera aldekoagoa izan.

ESKAINTZAREN ALDAGIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025			
			I	II	III	IV
BPG erreala	2,5	2,3	2,1	2,2	2,3	2,4
Nekazaritza eta arrantza	4,3	-0,6	0,6	-0,4	-1,5	-1,2
Industria eta energia	2,0	0,4	0,4	0,1	0,2	0,9
- Manufaktura industria	1,7	3,7	0,2	0,0	0,3	0,8
Eraikuntza	2,0	2,8	1,7	3,1	5,1	4,9
Zerbitzuak	2,9	2,3	2,7	2,8	2,9	2,8
- Merkat., ostalaritza eta garraioa	2,0	3,3	2,9	3,3	3,5	3,2
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,9	2,1	2,0	2,1	2,1	2,1
- Gainontzeko zerbitzuak	3,5	2,9	2,8	2,7	2,9	3,0
Balio erantsi gordina	2,6	2,3	2,1	2,1	2,4	2,5
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,6	2,2	2,3	2,4	2,2	2,1

Iturria: Eustat.

Ahultasun aldi luze baten ondoren, Euskadiko industria jarduerak balantze oso neurritsua erakusten jarraitzen du 2024tik. Hala ere, 2025eko itxierak ñabardura positiboagoa dakar, laugarren hiruhilekoan hiruhileko arteko %0,7ko hazkundera erregistratu baita. Aurrerapen

horrek, hirugarren hiruhilekoan ikusitako gorakadarekin batera, aurreko hiru hiruhilekoetan metatutako jaitsierak partzialki arintzea ahalbidetu du.

Urtearen azken zatiko tonu hobe hori Industria Produkzioaren Indizearen bilakaeran islatzen da, laugarren hiruhilekoan %0,6 hazi baitzen, ekitaldiaren lehen erdian izandako jaitsiera jarraituen aldean. Produkzioaren xede ekonomikoaren arabera, kontsumo ondasunek, batez ere ez-iraunkorrek, eta bitarteko ondasunek atzerakadak izan dituzte; ekipo ondasunek, berriz, hazkunde nabarmena izan dute, hazkunde orokorra azalduz eta kapital finkoaren eraketa gordinaren dinamismoarekin bat etorritz. Bestalde, energia ekoizpena ia geldirik dago.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025			
			I	II	III	IV
Industria						
Industria produkzioaren indizea	-0,9	-0,8	-1,9	-1,9	0,0	0,6
Negozio zifren indizea	-5,0	-0,6	-0,4	-4,8	2,2	1,1
Industria giroaren indizea (maila)	-13,3	-14,4	-12,5	-15,6	-15,8	-13,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,9	0,1	0,4	0,0	0,1	0,1
Eraikuntza						
Eraikuntzaren koiuntura indizea	3,4	8,2	4,4	10,4	12,0	6,3
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	3,3	0,0	-34,2	39,1	18,2	0,0
Etxebizitzaren salerosketak	12,0	14,9	25,0	28,6	3,0	8,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	0,1	1,9	1,2	1,9	2,1	2,6
Zerbitzuak						
Merkataritza salmenten indizea	0,6	1,3	1,3	0,5	2,7	1,0
Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea	2,2	2,3	3,9	1,0	2,9	1,5
Negozio zifren indizea	0,7	6,0	7,1	5,2	5,7	6,3
Hegazkinen bidezko bidaiariak	5,4	4,3	1,6	6,4	1,2	8,0
Hoteletan igarotako gaualdiak	3,4	3,6	0,5	8,8	1,9	2,5
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	1,3	1,3	1,2	1,2	1,4

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Sektorearen beste adierazle koiunturalek diagnostiko hori berresten dute hirugarren hiruhilekoarekiko. Industriako klimaren indizeak, tradizionalki ezkorra izan dena, hobera egin du apur bat, baina maila baxuetan dago oraindik; eta enpresen itxaropenak oraindik ahulak dira. Era berean, industrian Gizarte Segurantzako afiliazioa hamarren bat baino ez da hazi, industriako enpleguak urte osoan zehar izan duen portaera makala berretsiz.

Eraikuntzaren sektoreak hazkunde oso handia izan du laugarren hiruhilekoan (%4,9), eta bizkortze argia adierazten duen dinamika indartu du, etxebizitza-eskariaren hazkunde handiak lagunduta. Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen aurrerapenak (%6,3) eta Gizarte Segurantzako afiliazioaren hazkundeak (%2,6) sektoreak euskal ekonomia osoaren bultzatzaile gisa duen paper gero eta garrantzitsuagoa berresten dute. Aldi berean, etxebizitzaren salerosketek goranzko bideari eutsi zioten laugarren hiruhilekoan. Etxebizitza berriak eraikitze oniritzi kopuruaren geldialdiak (bai azken hiruhileko honetan bai urte osoan zehar), berriz, eraikuntza prozesuari datxekion epeak islatzen ditu, desoreka baitakar ekoizpenaren aktibazioaren eta bizitegi eskaintza berriaren gauzatzearen artean.

Zerbitzuek dinamismo nabarmena mantendu zuten oraindik, balio erantsiaren urte arteko %2,8ko hazkundearekin, nahiz eta nolabaiteko moteltzea ikusten den aurreko hiruhilekoen aldean. Urtean zeharreko balazta txiki hori jarduera-adar guztietan igartzen da, baina adar bakoitzaren hazkunde dinamikak desberdina izaten jarraitzen du. Merkataritza, ostalaritza eta garraioa %3,2 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gutxiago, baina aurreko urtean baino erritmo nabarmenagoan. Administrazio publikoari lotutako zerbitzuak eta hezkuntzarekin eta osasungintzarekin lotutako zerbitzuen jarduera % 2,1etako igoera jaso zuen urte artean, aurreko hiruhilekoetan bezala, baina hiruhileko arteko aldakuntzak (%0,3) sektorearen moteltzea berretsi zuen urteko lehen hiruhilekoen alderatuta. Zerbitzuen sektoreko gainerako jarduerak %3,0ko hazkundeak izan zuten, gutxien moteldu zen adarra izanda.


Adierazle koiuntural berrienek bilakaera positiboa adierazten dute. Merkataritzako eta merkatuko beste zerbitzu batzuetako indizeek aurreko hiruhilekokoak baino aurrerapen apalagoak erakusten badituzte ere, negozio-zifren indizearen hazkundeak gora egin du %6,3ra arte. Turismoarekin lotura handiena duten adierazleek irudi bereziki positiboa erakusten dute: hoteletako gaualdiak %2,5 hazi dira, aurreko hiruhilekoaren %1,9aren aldean, eta hegazkinek bidaiarien trafikoa gorakada handia izan du, %8,0ko hazkundearekin.

Ekonomiaren bilakaera ona lan merkatuan islatu zen; izan ere, 2025. urtea %1,4ko igoerarekin amaitu zen, aurreko ekitaldian baino hamarren bat gutxiago, eta oraindik ere oso hazkunde sendo bat. Igoera horrek lanaldi osoko ia 14.000 lanpostu baliokide sortzea ekarri zuen. Hiruhilekoko profilak lehen hiruhileko bereziki dinamikoa erakusten du, %1,5eko hazkundearekin; ondoren, %1,4 inguruan egonkortu zen urtearen amaierara arte. Azken


hiruhilekoan, lanpostu kopuru osoa milioitik gorakoa izan zen, eta estatistika serie osoko mailarik altuenera iritsi zen. Sektoreka begiratuz gero, 12.000 enplegu baino zertxobait gehiago sortu ziren zerbitzuetan, %1,7ko hazkundera izanik. Nekazaritzakoak izan ezik, gainerako sektoreek ere aurrera egin zuten, baina hazkunde apalagoekin. Industria %0,3 hazi zen, hau da, 600 enplegu berri baino zertxobait gutxiago. Eraikuntzak, berriz, %1,9 egin zuen gora, 1.100 postu baino gehiago sortuz.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza.

Sexuaren arabera enpleguaren bilakaera lan-merkatuko inkesten bidez ikus daiteke. Eustatek egindako BJAREN arabera, iazko laugarren hiruhilekoan 1.012.300 pertsona zeuden lanean; 521.700 gizonak ziren eta 490.500 emakumeak. Urte arteko aldakuntza tasak %1,5ean kokatu ziren, gizonen artean %1,0ko hazkundearekin eta emakumeen artean %2,1ekoa. Emakumeak gehiago kontzentratzen dira zerbitzuetan, hedapen handieneko sektorea baita. Bilakaera horren ondorioz, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio tasa %71,3koa izan zen 2024ko laugarren hiruhilekoan, eta %71,6koa 2025eko amaieran. Sexuaren arabera, tasak %73,8ra iritsi ziren gizonen kasuan eta %69,4ra emakumeen kasuan. Horrek esan nahi du 2025eko laugarren hiruhilekoan lau puntuko eta lau hamarreneko diferentzia izan dela, 2024ko aldi berean erregistratu ziren bost puntu eta hiru hamarreneko diferentzia baino bederatzi hamarren gutxiago. Hobekuntza horrek agerian uzten du bai emakumeak lan merkatuan sartzean izan den aurrerapen nabarmena, bai gizonen okupazioan izan den beherakada txikia, enpleguan dagoen genero arrakala murrizten lagunduz.

2026ko lehen bi hilabeteetan, enpleguaren sorrerak aurrera egiten jarraitu du erritmo onean, baina moderaziorako joera txiki batekin. Gizarte Segurantzako afiliazioaren arabera, urtarriko eta otsaileko batez besteko igoera %1,0koa izan zen, 2025eko azken hiruhilekoan baino bi hamarren txikiagoa baino ez. Sexuen arabera hazkundeak oso orekatua izaten jarraitzen du: 2025eko amaieran bi kolektiboetan %1,2ko batez besteko hazkundea izan ondoren, emakumeak eta gizonak %1,0 eta %1,1 hazi dira, hurrenez hurren, 2026 ekitaldiaren hasieran. Sektoreka, nabarmentzekoa da zerbitzuek urte hasieran dinamismoari eusten diotela, %1,3ko hazkundearekin, 2025eko azken hiruhilekoan %1,4 hazi ondoren. Industria, berriz, ia geldirik jarraitzen duen arren, zertxobait hobetu da, %0,2 hazi baita, laugarren hiruhilekoaren %0,1en aldean.

Laugarren hiruhilekoan, eta BJAren arabera, biztanleria aktiboak urte arteko %0,7 egin du gora, hau da, urtebete lehenago baino 7.600 pertsona gehiago daude lan egiteko prest. Hazkunde horretatik, 4.400 emakumeak izan ziren eta 3.200 gizonak. Jarduerak aurrera egin duen arren, okupazioaren bilakaera onak langabetuen kopurua murriztea ahalbidetu du; izan ere, laugarren hiruhilekoan 68.000 langabe zeuden, horietatik 34.400 inguru emakumeak izanik. Dinamika horrekin, langabezia tasa %6,3ra jaitsi zen 2025aren amaieran, hau da, aurreko urtean baino zazpi hamarren gutxiago. Sexuaren arabera, tasa %6,0koa izan zen gizonen artean eta %6,6koa emakumeen artean. Ondorioz, bien arteko diferentziala 2024an puntu bat eta hiru hamarren izatetik 2025eko laugarren hiruhilekoan sei hamarren izatera igaro zen. Hau, azken urtean emakumeen okupazioak izandako gorakada nabarmena eta emakumeen eta gizonen langabezia tasen arteko oreka handiagoaren islada da.

Deigarria da, halaber, biztanleria nazionalaren langabezia tasaren (%5,7) eta atzeritarren langabezia-tasaren (%11,4) arteko aldea. Aldeak handia izaten jarraitzen duen arren, azkar ari da estutzen. 2024ko laugarren hiruhilekoan, tasak %6,1 eta % 14,9 ziren, hau da, zortzi puntu eta zortzi hamarreneko aldea zegoen, 2025eko laugarren hiruhilekoan, berriz, bost puntu eta zazpi hamarreneko aldea besterik ez dago.

BPGaren (%2,3) eta enpleguaren (%1,4) konbinazioaren arabera lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia 2025ean bederatzi hamarren ingurukoa izan zen, aldagai horren batez besteko historikotik oso gertu (%1,0). Produktibitateak aurrera egin zuen urtearen bigarren erdian, BPGaren hazkundera eta enpleguak egonkor jarraitu izanari esker. Nabarmentzekoa da industriaren portaera, 2025ean ia ez baitzuen produktibitate aurrerapenik egin (%0,1). Aitzitik, eraikuntzak emaitza nabarmena izan zuen, %1,8ko hazkundearekin, normalean industriak baino produktibitate irabazi txikiagoak lortu ohi dituenean. Zerbitzuek %1,1eko hazkundea izan dute produktibitatean, epe luzeko batez bestekoarekin bat.

Barne eta kanpo eskaria

2025ean, oro har, Euskadik bere hazkundeari eutsi zion, bere barne eskariaren sendotasunean oinarrituta. Urteko ibilbidea sendoa izan zen; urtearen hasieran ikusitako hazkunde patroia urte amaiera arte mantendu zen, eta kontsumoaren eta inbertsioaren arteko osaera egonkorra izan zen. Kanpoko sektorearen ekarpena berriz, aurreko etapetan baino nabarmen txarragoa izan zen.

ESKARIAREN ALDAGAIAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025			
			I	II	III	IV
BPG erreala	2,5	2,3	2,1	2,2	2,3	2,4
Gastua azken kontsumoan	2,8	2,5	2,4	2,2	2,7	2,6
- Familien gastua kontsumoan	2,5	2,7	2,6	2,8	2,9	2,6
- Adminis. gastua kontsumoan	3,5	1,7	1,9	0,3	2,1	2,3
Kapital eraketa gordina	2,7	4,0	2,3	3,5	4,9	5,2
- Ekipamendu ondasunak	2,4	4,3	3,0	4,0	4,8	5,2
- Gainontzeko inbertsioa	2,9	3,8	1,8	3,2	4,9	5,2
Barne eskaria	2,8	2,8	2,4	2,5	3,2	3,2
Esportazioak	0,1	0,4	2,0	0,8	-1,8	0,6
Inportazioak	0,4	1,2	2,4	1,3	-0,5	1,8

Iturria: Eustat.

Zehatzago esanda, kanpo-saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena nabarmen negatiboa izan zen. Esportazioek, termino errealetan, %0,4 bakarrik egin zuten aurrera, eta inportazioek, berriz, %1,2 egin zuten gora, erritmo nabarmen handiagoa. Ondorioz, kanpo-sektoreak sei hamarren kendu zizkion hazkundeari horrela 2024rekiko galera areagotuz, orduan, bi bakarrik kendu baitzizkion. Gainera, ekarpen negatibo hori areagotu egin zen urtearen bigarren erdian, barne eskariaren bultzada handiagoa eta indar gutxiarekin hazten jarraitu zuten Europako merkatu batzuen ahultasuna islatuz. Testuinguru horretan, euskal ekonomiaren aurrerapena, funtsean, barne osagaietan oinarritu zen.

Hala, barne eskaria izan zen, argi eta garbi, ekitaldiko motorra, %2,8ko hazkundearekin. Azken kontsumoak, familien eta administrazio publikoen gastuak barne, erritmo egonkorra mantendu zuen urtean zehar. Hazkundera %2,4 eta %2,6 artekoa izan zen, %2,5eko batez bestekoarekin,

eta bi faktorek eutsi zioten: batetik, prezioen normalkuntza progresiboak errenta erabilgarriaren gaineko presioa arindu zuen, eta, bestetik, funtsezko zerbitzu publikoak ongi betetzeak, gastu-eredu erregularra mantentzea ekarri zuten.

Haren ondoan, inbertsioak ekonomia osoak baino portaera dinamikoagoa erakutsi zuen. Lehen hiru hilekoan % 2,3 hazi zen eta laugarrenean % 5,2; beraz, urteko batez bestekoa % 4,0koa izan da, azken hiru urteetako erregistrorik handiena. Bilakaera horrek zikloaren palanka gisa duen eginkizuna berretsi zuen: ekoizpen-proiektuak bultzatu zituen, teknologia txertatzea erraztu zuen eta hurrengo hiru hilekoetan produktibitatea hobetzeko oinarriak indartu zituen; alderdi hori bereziki garrantzitsua izan zen kanpo-ekarpenak lagundu ez zuen urte honetan.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2025			
			I	II	III	IV
Kontsumoa						
Azalera eta kate handietako salmentak	0,6	0,9	-0,3	2,2	0,4	1,5
Txikizkako merkataritza indizea	2,8	5,3	4,5	5,6	6,0	5,1
Kontsumo ondasunen ekoizpena	-0,7	-0,5	-0,6	0,1	1,8	-3,3
Kontsumo ondasunen inportazioa	-4,0	6,8	15,0	2,7	11,1	-1,3
Turismoen matrikulazioa	5,9	18,5	8,5	29,1	29,0	9,3
Inbertsioa						
Ekipo ondasunen ekoizpena	-1,2	1,2	0,0	-1,7	2,5	4,3
Ekipo ondasunen inportazioa	-0,6	11,0	12,3	8,4	8,3	14,6
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	0,1	4,6	-0,1	7,4	11,3	1,0
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	-1,0	-21,6	-27,6	24,1	-42,1	-26,2
Lizitazio ofiziala	51,5	15,3	41,3	-4,4	92,9	-11,7

Iturria: Ekonomia Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

2025ean, euskal ekonomiaren hazkundera nazioarteko ingurunearen babesik gabe gertatu zen. Funtsezko hainbat merkataritza-bazkideren ahultasunak eta muga-zergen gertakarien iraunkortasunak jarduera moteltzen eta BPGaren aurrerapen globalari hamarrenak kentzen jarraitu zuten. Testuinguru horretan, ondasunen eta zerbitzuen atzerriko esportazioak, Estatuko gainerako lurraldeak zein atzerrikoak barne, %0,4 bakarrik igo ziren termino errealetan,

eta inportazioak, berriz, %1,2. Unean uneko prezioetan neurtuta, hazkundea zertxobait handiagoa izan zen (%1,5 eta % 2,4, hurrenez hurren), prezioen hazkundearen ondorioz. Bi kasuetan, zifra errekorrak lortu ziren serie historikoan: 69.097 milioi euro esportazioetan eta 69.327 milioi inportazioetan.

Eustaten informazioaren arabera, ondasunen atzerriko esportazioak %3,6ko beherakada izan zuen 2025ean, aurreko urtean baino murrizketa apalagoa (-%5,1). Lehen hiruhilekoan oraindik positiboa izan ondoren, gainerako hiruhilekoetan jaitsiera jarraituak izan ziren. Laugarren hiruhilekoan, urte arteko aldakuntza -%3,7 izan zen, guztira 7.592 milioi euro salduta. Atzerritik etorritako ondasunen inportazioek ere behera egin zuten, baina apalago (-%1,1), 6.573 milioi euro guztira.

ESPORTAZIOAK PRODUKTUEN ARABERA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro							
	2024	2025	2025				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-5,1	-3,6	1,6	-2,7	-9,8	-3,7	7.592.288
Energia	-1,4	-33,3	-47,7	-33,6	-40,3	-0,3	329.664
Ez-energetikoak	-5,4	-1,6	5,1	-0,3	-7,6	-3,9	7.262.624
Nekazaritzakoak	-21,2	13,5	13,0	9,3	29,1	6,0	468.794
Kimikoak	-7,1	8,1	-20,3	11,4	33,9	18,1	233.612
Plastikoak eta kautxua	-19,9	-18,1	-9,0	-22,4	-18,7	-24,0	319.159
Papera	4,1	-14,0	-3,6	-17,6	-23,5	-9,1	157.918
Metal arruntak	-2,9	-6,1	3,7	-9,9	-11,8	-6,1	1.560.701
Makinak eta aparatuak	11,6	0,0	10,7	-6,5	-2,0	-0,7	1.843.101
Garraio materiala	-10,7	2,0	7,0	18,1	-13,9	-4,9	2.193.802
Gainontzekoak	-8,5	-5,0	10,4	-8,0	-16,3	-4,4	455.802

Iturria: Eustat.

Kategoria handien arabera, esportazio energetikoek oso uzkurdura esanguratsua izan zuten (-%33,3). Atzerakada hori, neurri handi batean, energiaren nazioarteko prezioen beherakadaren, ondorio izan zen, aurreko urteko prezioen eta Europako hainbat merkatutan kanpo eskariaren gorakada txikiagoaren aurrean, eta horrek bai unitate-balioak bai ontziratutako bolumenak murriztu zituen. Prezio efektuak areagotu egin zuen esportatutako balioaren gaineko eragina, nahiz eta erregai mineralen kapitulua esportatutako urteko

guztizkoaren %4,3 baino ez izan, haren jaitsierak berez 2,1 puntu kendu zizkion %3,6ko jaitsiera agregatuari.

Bestalde, metal arruntek eta horien manufacturek %6,1 egin zuten atzera, eta 1,3 puntu kendu zizkieten esportazioen guztizkoari. Kasu honetan, merkatu garrantzitsu batzuek aplikatutako muga zerga berriek eragin zuzena izan zuten salmenta horien lehiakortasunean, oraindik ahula zen Europako eskariaren testuinguruan.

Jaitsiera horien aurrean, hainbat sektorek seinale positiboak eskaini zituzten. Ekipamenduko ondasunek %1,1arekin itxi zuten urtea, garraio-materialak (%2,0) eta makinen eta erreminten egonkortasunak (%0,0) bultzatuta. Gainera, nekazaritza produktuen dinamismoa (%13,5) eta kimika sektorearena (%8,1) gehitu ziren, uzkurdura globala moteltzen lagunduz.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro							
	2024	2025	2025				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	-5,1	-3,6	1,6	-2,7	-9,8	-3,7	7.592.288
ELGA	-6,4	-5,4	-2,0	-6,7	-9,7	-3,2	6.296.053
Eurogunea	-6,5	-5,1	-3,7	-5,2	-9,1	-2,6	3.925.578
Alemania	-13,0	-0,7	1,0	3,3	-2,9	-4,5	1.117.546
Frantzia	-0,4	-10,1	-10,0	-10,3	-16,6	-3,3	1.067.057
Italia	-1,5	-0,2	-0,2	-13,2	13,8	3,9	446.156
Erresuma Batua	6,0	-9,7	-2,7	-20,3	-6,9	-5,7	509.445
AEB	-27,2	-11,7	-9,5	-7,6	-21,8	-8,2	435.929
ELGAtik kanpokoak	2,3	6,0	24,0	20,1	-10,6	-5,9	1.296.235

Iturria: Eustat.

Urte osoan, azterketa geografikoak berretsi zuen esportazioen jaitsiera eremu guztietara hedatu zela. 2025ean, ELGAko herrialdeetara egindako salmentak 24.719 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtean baino %5,4 gutxiago, nahiz eta pisu nagusia mantendu zuten: atzerrira esportatutako guztizkoaren %82,8. Aitzitik, gorabidean eta garapen bidean dauden herrialdeek portaera hobea izan zuten, eta haiek egindako erosketak %6,0 igo ziren, 4.210 milioi eurora iritsi arte.

Herrialde garatuen taldearen barruan, EAEk kanpora egindako esportazioen erdia baino gehiago euroaren eremuan bildu ziren. Hala ere, 2025 urte ahula izan zen merkatu horrentzat, %5,1eko urteko jaitsierarekin. Atzerakada hirugarren hiruhilekoan iritsi zen punturik nabarmenenera, %9,7ko jaitsierarekin, eta ekitaldiaren amaieran soilik moteldu zen partzialki, jaitsiera %3,7ra jaitsi zenean. Garraio materialaren esportazioen uzkurdurak, zonaldera esportatutako talde nagusia izanik, urteko profila markatu eta emaitza orokorra baldintzatu zuen, automobilgintzaren sektorearen inguruko ziurgabetasunak eta trenbideetako ibilgailuen salmenten murrizketa nabarmenak eraginda. Horri gehitu behar zaio plastikoaren eta kautxuaren bilakaera negatiboa, laugarren hiruhilekoan eta urteko balantzean bilakaera negatiboa izan baitzuen. Aitzitik, metal arruntek eta horien manufacturek eta produktu mineraletan nolabaiteko hobekuntza izan zuten ekitaldiaren azken txanpan, nahiz eta berreskuratze hori ez zen nahikoa izan urteko emaitza metatua iraultzeko.

Alemaniak, bere egiturazko ahultasuna gorabehera, euskal esportazioen lehen helmuga izaten jarraitu zuen 2025ean. Hiruhilekoko profilak seinale mistoak utzi zituen; izan ere, lehenengo bi hiruhilekoek urte arteko tasa positiboak izan zituzten, baina urtearen bigarren erdian beherakada bat gertatu zen ekitaldiaren itxieran areagotu zena. Eurogune osoan ez bezala, Alemaniara zuzendutako garraio materialak urtea modu positiboan ixtea lortu zuen, %1,0ko hazkundearekin, nahiz eta pisu esanguratsua duten beste talde batzuek atzerakada handiak izan zituzten, hala nola produktu mineraletan %90,1eko jaitsiera eta makina eta aparatuetan %12,4koa.

Frantziak berriro galdu zuen lehen postua helmugako merkatu gisa, eta ez zuen pultsua berreskuratzerik lortu urteko une bakar batean ere. Hirugarren hiruhilekoan minimoak izan ondoren (salmentak 1.000 milioi eurotik beherakoak izan ziren), gora egin zuen pixka bat azken hilabeteetan, baina urte arteko alderaketak negatiboan jarraitzea saihestu gabe. Lehenengo hiru hiruhilekoetan, jaitsierak %10etik gorakoak izan ziren, eta laugarren hiruhilekoan jaitsiera %3,3ra moteldu bazen ere, ia talde handi guztiek kontrakzioekin itxi zuten aldi hori, metal arruntek izan ezik, %2,2ko hazkundea lortu baitzuten.

Italiak euroguneko batez bestekoak baino bilakaera hobe izan zuen. Laugarren hiruhilekoan, erosketak %3,9 hazi ziren, produktu energetikoen eskariaren ohiz kanpoko hazkundeak (%4.828,2) eta makinaren eta aparatuen erresilientziak bultzatuta. Hala ere, urteko balantzeak %0,2ko jaitsiera txikia izan zuen.

Eurogunetik kanpo, eta gero eta merkataritza tentsio handiagoak eta Estatu Batuetan mugazerga murriztaileagoak dituen nazioarteko ingurunean, euskal esportazioak argi eta garbi ahuldu ziren 2025ean. Merkatu honek bosgarren garrantzitsuena izaten jarraitu zuen Euskadirentzat, eta hiruhileko profil kontraktiboa izan zuen hasieratik amaierara. Lehen bi hiruhilekoek jaitsiera

neurritsuak izan zituzten, hirugarrenak zuzenketa areagotu zuen erorketa handiagoarekin, eta laugarrenak, hain txarra ez izan arren, negatiboan jarraitu zuen. Merkataritza hesien gogortzeak eta eskaera ez hain dinamikoak urte osoko berreskuratze ahalmena mugatu zuten.

Urteko doikuntza pisu esanguratsua zuten hainbat taldetan kontzentratu zen. Burdina eta altzairua galdatzeko manufakturen salmentak jaitsi egin ziren 2024an 48,9 milioitik 2025ean 33,6 milioira, %31 inguruko jaitsiera. Ibilgailuek ere ez zuten aurreko dinamika berreskuratu, eta ekitaldia 53,9 milioirekin itxi zuten, azkenaldiko maximoetatik urrun. Horri gehitu behar zaio erregai mineralen uzkurdua, 155,9 milioitik 96,5 milioira jaitsi baitziren esportazioak. Zuzenketa horien konbinazioak, guztiak ere merkataritza oztopo handiagoen edo muga zergarik gabeko lehiakideen aurkako garestitze erlatiboaren eraginpean daudenak, Estatu Batuetako merkatuaren ahultzearen zati handi bat azaldu zuen, eta kanpo sektorearen trakzio galera indartu zuen 2025ean.

ELGAren eremutik kanpo, Txinak jarraitu zuen izaten zen hazten ari den merkatu nagusia, nahiz eta pisu txikia izan esportatutako guztizkoaren barruan. Laugarren hiruhilekoan salmentak 125,6 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urteko aldi berean baino %27,7 gutxiago. Jaitsierak argi eta garbi eragin zien garraio materialari eta herrialde horrekiko merkataritza harremanen oinarrian dauden makina eta aparatuei; metal arruntak izan ziren, aldiz, partida garrantzitsuen artean, portaera zertxobait egonkorragoa erakutsi zuten bakarrak hiruhileko nabarmen kontraktibo batean.

Inportazioek gora beheradun portaera izan zuten 2025ean. Ekitaldiaren hasiera hedakorra izan zen argi eta garbi, %5,9ko aurrerapenarekin lehen hiruhilekoan, baina kanpoko erosketak fase uzkurgarrian sartu ziren udaberrian eta udan, %8,2ko eta %2,1eko jaitsierekin, hurrenez hurren. Laugarren hiruhilekoan, jaitsiera %1,1eraino murriztu zen, eta, ondorioz, urte osoan %1,6 jaitsi zen. Bilakaera hori erregai mineralen atzerakadaren ondorio izan zen soilik, horien inportazioak %17,1 murriztu baitziren. Produktu ez-energetikoak, berriz, %4,2 hazi ziren hiruhilekoan eta %5,3 urte osoan, 21.000 milioi euro ingurura iritsiz, orain arteko mailarik altuenera. Metal arruntak eta horien manufakturen erosketen dinamismoak azaltzen du, neurri handi batean, osagai ez energetikoaren tonurik onena.

Laugarren hiruhilekoan, inportazioek bilakaera desberdina izan zuten eremu geografikoen arabera. ELGAko herrialdeetatik egindako erosketak %4,6 hazi ziren, euroaren eremuko aurrerapenean oinarrituta; izan ere, euroguneak %2,0ko igoerari eutsi zion eta Euskadirako horniduraren zatirik handiena ekarri zuen. Ingurune horren barruan, Italiaren dinamismoa nabarmendu zen, %5,9ko hazkundearekin; Frantziatik etorritako inportazioek, aldiz, hazkunde neurritsuagoa izan zuten, %0,2koa, eta Alemaniatik etorritakoek %5,6 egin zuten behera, industria ondasunen eskari txikiagoko testuinguru batean. Europar Batasunetik kanpo, Estatu

Batuek portaera hedakorra izan zuten berriro, %25,7ko igoerarekin, balio erantsi handiko hainbat ondasunek bultzatuta. Aitzitik, ELGAkoak ez diren herrialdeetatik etorritako inportazioak %13,6 murriztu ziren, aurreko hiruhilekoetan ikusitako ahultasun patroia sendotuz.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2024	2025	2025				
			I	II	III	IV	IV
GUZTIRA	0,9	-1,6	5,9	-8,2	-2,1	-1,1	6.572.817
ELGA	-1,9	1,3	0,3	0,9	-0,8	4,6	4.768.902
Eurogunea	-0,9	1,7	6,0	2,0	-1,2	2,0	2.922.567
Alemania	1,1	3,2	12,3	11,8	-5,3	-5,6	976.312
Frantzia	0,2	1,0	7,3	0,2	-3,6	0,2	518.166
Italia	-1,9	-0,6	-8,5	-4,7	6,3	5,9	344.930
Erresuma Batua	13,5	8,8	-9,9	46,2	-9,2	2,9	138.272
AEB	-13,5	2,6	-27,9	22,1	4,7	25,7	460.716
ELGAtik kanpokoak	7,0	-7,3	19,0	-23,7	-4,7	-13,6	1.803.915

Iturria: Eustat.

Laugarren hiruhilekoan, ondasunen merkataritza superabita 1.019 milioi eurora iritsi zen, eta Euskadiren saldoa positiboa izan zen. Osagai energetikoa berriz ere defizitarioa izan zen (-1.045 milioi), azken aldiekiko apaltze txiki batekin; saldo ez-energetikoa, berriz, 2.064 milioikoa izan zen. Arloka, herrialde garatuekiko merkataritzak 1.527 milioiko superabita izan zuen, garapen bidean zeuden herrialdeekiko -507 milioiko defizitaren aurrean. Bazkide nagusien artean, Frantziak izan zuen superabit handiena (549 milioi); Estatu Batuak, berriz, eremu negatibora igaro ziren (-25 milioi), lehenengo aldiz bi urtean.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Orokorrean, prezioen hazkundera baretu egin zen 2025ean. KPIk zein IPRIk urtea nolabaiteko dinamismoarekin hasi bazuten ere, urte amaieran moderaziorantz jo zuten. BPGaren deflatoreak ere 2024ko %2,8tik %2,6ra egin zuen behera 2025ean; hala ere, kasu honetan moderazio prozesua eten egin zen laugarren hiruhilekoan, eta deflatorea azkartu egin zen,

%2,9ra iritsiz. Urteko amaierako goranzko joera horretan, bai kontsumoaren bai inbertsioaren deflatoreek izan zuten eragina, barne eskariaren sendotasuna islatuz. Bestalde, esportazioei eta inportazioei lotutako deflatoreek askoz igoera apalagoak izan zituzten lehen bi hiruhilekoekin alderatuta.

Urte hasieran 2024ko amaierakoak baino tasa handiagoak izan ondoren, inflazioa moteldu egin zen bigarren hiruhilekoan, hirugarrenean gora egin zuen apirileko itzalaldiaren ondoren elektrizitatea garestitu egin zelako, eta berriro leundu zen abenduan. Gainera, 2025eko urtarrilean upel bakoitzeko 75 dolar izatetik abenduan 60 dolar ingurura igaro zen petrolioia, eta inflazioari eusten lagundu zuen, maiatzetik aurrera izandako garestitze elektrikoaren aldean. Horren guztiaren ondorioz, urteko balantzea egonkor samar mantendu zen 2024aren aldean (%3,1 eta %3,0 2025ean). 2026ko urtarrilean eta otsailean (%2,3 eta %2,4), indizearen hazkundera argi eta garbi moteldu zen, merkatu elektrikoaren egonkortzeari esker, baina zerbitzuek eta elikagaiak maila altuetan jarraitu zuten. Datozen hilabeteetarako ziurgabetasuna da nagusi, Golkoko gatazka petrolioaren eta beste lehengai batzuen joan-etorria zailtzen ari da, eta horrek prezioen goranzko joera eragingo du. Igoera gatazkaren iraupenaren arabera izango da: laburra bada, ondorioak diluitu egin daitezke; luzatzen bada, inflazioan eragin nabarmenagoa izan dezake.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2024	2025	2025		2026	Ekarpena
			III	IV	Otsaila	
Inflazio osoa (%100)	3,1	3,0	3,0	3,1	2,4	2,4
Azpiko inflazioa (%85,3)	3,2	2,6	2,5	2,5	2,7	2,2
- Elikagai landuak (%14,1)	4,6	2,1	1,8	2,2	3,2	0,4
- Industria ondasunak (%18,5)	1,2	0,9	0,8	0,3	-0,3	-0,1
- Zerbitzuak (%52,7)	3,5	3,4	3,4	3,5	3,6	1,9
Hondar inflazioa (%14,7)	2,6	5,2	5,7	6,2	1,3	0,2
- Landu gabeko elikagaiak (%6,8)	4,0	6,8	7,0	7,2	7,3	0,4
- Energia (%7,9)	1,0	4,1	4,9	5,4	-3,1	-0,2

Iturria: INE.

Euroguneko inflazioak %2,5 inguruan hasi zuen 2025a, eta arian-arian motelduz joan zen ekitaldian zehar, %2,0 inguruan egonkortu arte. Azken hilabeteetan, maila horren azpitik ere

jaitsi zen, urtarrilean %1,7 eta otsailean %1,9, energiaren prezioen beherakadak eta hainbat zerbitzu-kategoriatan eusteak bultzatuta. Horri esker, Europako Banku Zentralak nahiko epe lasaia izan du bere moneta-politikaren orientazio moldakorragoa bat aplikatzeko. Testuinguru horretan, EBZk interes tasak urte hasierako %2,5etik %2,0ra jaitsi zituen ekainean, eta maila horri eutsi dio ordutik, eskualdearen dinamika ekonomiko ahula suspertzeko helburuarekin.

EAEko KPIra itzuliz, azpiko inflazioak portaera egonkorra izan zuen 2025ean, %2,5 eta %3,0 arteko tasekin, 2024arekiko moderazio argia islatuz. Eraitza hori, neurri handi batean, industria-ondasunen desinflazioak azaltzen du; izan ere, urte amaieran tasak %0 ingurura jaitsi ziren, logistika eta ekoizpen kostuen normalizazioaren ondorioz. Zerbitzuek beheranzko erresistentziarekin jarraitu zuten, baina indize orokorraren gaineko presio gehigarririk gabe. Azpiko inflazioaren ainguratze horrek inflazio orokorra orekatzea ahalbidetu zuen.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak							
	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	Otsaila
Indize orokorra	3,1	3,0	3,2	2,6	3,0	3,1	2,4
Janariak eta alkohol gabeko edariak	4,5	3,4	3,4	3,4	3,1	3,8	4,5
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,3	3,9	3,9	3,9	4,3	3,4	4,7
Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,4	1,7	0,6	0,7	-1,0	-4,1
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	3,7	6,5	8,8	4,3	6,8	5,9	1,0
Etxeko hornidura	1,5	1,5	1,4	1,7	1,6	1,4	1,1
Medikuntza	2,7	2,3	2,2	2,1	2,4	2,4	2,0
Garraioa	0,9	0,7	0,0	-1,0	1,2	2,4	0,4
Komunikazioak	-0,1	0,3	0,6	0,5	-0,4	0,4	-1,0
Aisia eta kultura	2,9	1,4	1,7	2,4	1,3	0,3	1,2
Irakaskuntza	2,3	2,4	2,3	2,4	2,6	2,2	2,2
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	4,3	4,3	4,2	4,1	4,2	4,8	5,2
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,8	5,2	5,4	5,3	5,0	5,0	3,8
Zaintza perts. Babes soz. eta besteak	3,3	3,1	3,6	3,7	2,9	2,4	2,2

Iturria: INE.

Aitzitik, hondar inflazioak bilakaera nabarmen aldakorragoa erakutsi zuen. Produktu energetikoek hasierako garestitze handi batekin, ondorengo zuzenketarekin eta sistema

elektrikoaren doikuntzekin lotutako gorakada berri batekin hasi zuten urtea. Ondoren goranzko bide gero eta moderatuagoan aurrera egin zuten eta. 2026aren hasieran berriro merkatu ziren, eta, horrela, urtearen amaieran pilatutako tentsioen faseari itxiera emanez. Bestalde, elaboratu gabeko elikagaiek tasa altu iraunkorrak mantendu zituzten, %8 inguruko gailurrekin, eta horrek energiari zetorren eragin moderatzailea mugatu zuen eta hondar presioari eutsi zion indize orokorrean. Gainera, Ekialde Hurbileko gatazkaren bilakaerak zalantzazko elementu gehigarri bat gehitzen du, eta, aurreikuspenen arabera, hondar inflazio hori handitu egingo da datozen hilabeteetan.

Oro har, 2025ean, sendo ainguratutako azpiko inflazioa hondar inflazio oso aldakor batekin eta goranzko presioa egiten jarraitu zuten elikagai fresko batzuekin bizi izan zen. Ondorioz, inflazio orokorra %3tik gertu egon zen eta azken gertakarien argitan, epe ertainean %2ko helburu horretara hurbiltzea zaila izango da.

2025ean, Euskadiko inflazio-presioak honako talde hauetan kontzentratu ziren: etxebizitza, ura, elektrizitatea eta gasa (%6,5); aseguruak eta finantza-zerbitzuak (%5,2), primen garestitzean oinarrituta; eta jatetxeak eta hotelak (%4,3). Kontrako aldean, eragin moderatzailerik handiena izan zuten taldeak jantziak eta oinetakoak izan ziren, %0,4ko tasara mugatu baitziren eta garraioa %0,7tasarekin, erregaien portaera erlatiboki egonkorrari esker.

IPRiri dagokionez, 2024an izandako jaitsiera jarraituen ondoren, indizea tasa positiboetara itzuli zen urte horretako abenduan. 2025ean, hazkundeak oso maila neurritsuetan mantendu ziren, industriaren prezioen bilakaera jasoaren ildo beretik, energiaren merkatzeak lagunduta. Hala ere, 2025eko abenduan eta 2026ko lehen bi hilabeteetan, energia-prezioen beherakadaren areagotzeak berriro ere balio negatiboetan kokatu zuen indize orokorra, eta inflazio agregatua moteltzen lagundu zuen.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera bilakaerak energiaren eragin nabarmena berresten du. Ekipo ondasunek eta bitarteko ondasunek urte arteko terminoetan oso hazkunde neurritsuak izan zituzten, energia-kostuen merkatze horren eta produkzio-egiturara eskualdatzearen ildotik. Kontsumo-ondasunak zertxobait dinamikoagoak izan ziren barne-ekariaren sendotasunak eutsita. 2026ko urtarrilean eta otsailean joera hori areagotu egin da. Ondasun energetikoek nabarmen merkatzen jarraitzen dute, eta gainerako taldeek prezio jaitsiera arinak izan dituzte, kontsumo-ondasunak barne, nahiz eta azken hauek orain arte prezio jaitsieretara erresistenteak izan diren. Aitzitik, ekipo-ondasunak %1,6 garestitu dira otsailean 2025eko hil beraren aldean.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2021	2022	2023	2024	2025
Indarrean dauden hitzarmenak (guztira)	1,2	4,1	4,2	3,4	3,3
- Sektoreko hitzarmenak	1,0	3,9	4,3	3,4	3,4
- Enpresako hitzarmenak	1,9	4,7	4,1	3,2	3,2
Urtean erregistrat. hitzarmenak (guztira)	1,1	4,1	4,7	3,6	3,4

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Hitzarmen kolektiboei dagokienez, Euskadik %3,3ko soldata igoerarekin itxi zuen 2025. urtea, hitzarmenean itundutako Estatuko batez besteko soldata igoera (%3,5ekoa) baino zertxobait txikiagoa. Hala ere, erregistro hori inflazioaren gainetik egon zen; izan ere, esan bezala, inflazioak %3,0ko batez besteko hazkundera izan zuen ekitaldian, eta langileek erosteko ahalmena berreskuratu zuten. Soldata igoera hori murrizten joan da aurreko urteekin alderatuta, inflazioa pixkanaka moteldu zelako eta hitzarmenen ehuneko handi bat KPIri lotuta dagoelako. Azkenik, aipatzekoa da 2025ean negoziazio kolektiboak dinamismo txikiagoa erakutsi duela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Urtea ixtean, 415.575 langilek zituzten hitzarmenak eguneratuta, hau da, guztizkoaren %63,8k. Zifra hori 2024an erregistratutakoa baino txikiagoa da, orduan langileen %67,7k baitzituzten indarrean beren hitzarmenak (20.000 langile gutxiago inguruk zuten indarrean hitzarmena aurten). Hala ere, hitzarmenen luzapenari esker, egoerak azken urteetako onenetakoa izaten jarraitzen du; izan ere, langileen %4,5ek baino ez ditu hitzarmenak bertan behera utzi, eta 2024ean bezala mantendu da kopuru hori.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2024	2025	2024		2025		
			IV	I	II	III	IV
Lan kostu guztiak langileko	2,3	3,9	1,8	3,8	4,1	3,9	3,8
- Soldata kostua guztira	2,3	3,8	1,2	3,4	3,4	4,1	4,2
- Bestelako kostuak	2,5	4,2	3,5	5,0	6,0	3,5	2,5
Lan kostu guztiak orduko	2,7	3,3	1,9	1,6	7,8	2,5	1,9
- Soldata kostua guztira	2,6	3,2	1,3	1,1	7,1	2,6	2,3
- Bestelako kostuak	2,9	3,6	3,8	2,8	9,8	2,0	0,5
Adostutako lan orduak	-0,4	0,2	-0,5	-0,3	-0,3	-0,5	-0,5
Benetan lan egindako orduak	-0,3	0,4	-0,1	-3,9	2,8	0,1	-0,1

Iturria: INE.

Lan kostuen azterketak erakusten du 2025ean azelerazio bat eman zela aurreko urtearekin alderatuta. Langile bakoitzeko kostuak, lan kostuak zein soldatakoak, gehiago igo ziren, %3,9 eta %3,8 hurrenez hurren, 2024an bientzako erregistratutako %2,3aren aldean. Gorakada are nabarmenagoa izan zen beste kostuetan, horien tasa % 2,5etik % 4,2ra igaro baitzen aldi berean. Lan egindako ordu bakoitzeko kostuei dagokienez, guztizko lan kostuak %3,3 egin zuen gora, aurreko urteko %2,7aren gainetik, eta soldata kostuak eta beste kostuak, berriz, %3,2 eta %3,6raino bizkortu ziren, hurrenez hurren. Langileko eta orduko kostuen hazkunde erritmoen arteko aldea lanaldiaren portaerak azaltzen du; izan ere, 2025ean, bai itundutako orduak bai ordu efektiboak zertxobait igo ziren (%0,2 eta %0,4, hurrenez hurren), eta 148 ordu hitzartu eta 123 ordu efektibo izatera iritsi ziren.

Arlo publikoa

EAEko zerga itunduen bilketa osoa 20.324,5 milioi eurora iritsi zen 2025ean, eta % 11,0ko hazkundera izan zuen aurreko urtearen aldean. Zifra honek 20.000 milioiko muga gainditu zuen errekor berri bat ezarriz eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren aurreikuspenak gaindituz. Ekitaldiaren itxierak zerga sarreraren portaera sendoa islatzen du, batez ere barne eskariaren eta lan merkatuaren sendotasunak sustatuta.

Zuzeneko zergen bidezko bilketa 10.175,9 milioi eurokoa izan zen eta % 9,3 hazi zen, batez ere PFEZk bultzatuta, hau %14,2 hazi baitzen. Aurrerapen hori soldata errenten urte bateko igoerari, enplegu sendoagoari eta hazkundera mantendu zuen jarduera ekonomikoari zor zaio. Aitzitik, Sozietateen gaineko Zergak beherakada nabarmena izan zuen 2025ean (-%17,3), diru bilketa beherantz bultzatu zuten faktore konbinazio baten ondorioz. Nabarmenezkoa da zergadun handiek ekarpen txikiagoa egin dutela, eta BGAEen itzulketak handitu egin direla aitortutako emaitzak murriztuz. Horri gehitu behar zaizkio ekitaldi honetan zerga oinarri negatiboan erabilera zabalagoa ahalbidetu duten arau-aldaketak bai eta ziklo esportatzailearen eragin daukaten jardueren ahultasuna ere, bereziki energia eta automobilgintza. Gainera, urte arteko konparazioa 2024an sozietate kontzeptu bidezko diru bilketa bereziki handiak baldintzatzen du.

Ondarearen gaineko zergak (%17,2) eta Oinordetza eta Dohaintzen gainekoak (%25,7) aurrerapen nabarmenak izan zituzten, ondare jarduera handiagoa eta aktibo finantzario eta higigarri jakin batzuen balioaren goranzko portaera izan zutelako. Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren gaineko Zergak ere hazkunde nabarmena izan zuen (% 134,2), azken urteetan aldi baterako neurriak hartu eta gero zergak baldintza arruntetara itzuli zirelako eta energia-jarduera handiagoa izan zelako, aurreko fasearekin alderatuta.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abendua)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2024	2025	% Ald. 25/24
PFEZ	6.972.672	7.960.502	14,2
Sozietateen gaineko zerga	1.739.711	1.438.397	-17,3
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	171.107	192.466	12,5
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	179.829	226.116	25,7
Ondarearen gaineko zerga	197.469	231.338	17,2
Kreditu erakundeetako gordailuen gaineko zerga	29.493	29.788	1,0
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	22.728	53.232	134,2
FFEE Interes eta komisioen marjinaren gaineko zerga	0	44.081	--
ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA	9.313.009	10.175.920	9,3
BEZ	6.873.547	7.790.258	13,3
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	192.187	238.897	24,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	39.644	47.110	18,8
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	30.043	25.530	-15,0
Estatuarekin doikuntzak dituzten zerga bereziak	1.458.065	1.590.785	9,1
Elektrizitatearen gaineko zerga berezia	49.338	71.117	44,1
Aseguru sarien gaineko zerga	125.275	133.077	6,2
Joko jardueren gaineko zergak	7.066	8.289	17,3
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	9.327	8.325	-10,7
Finantza-transakzioen gaineko zerga	80.522	97.263	20,8
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	13.283	15.293	15,1
Zabortegetan hondakinak uztearen gaineko zerga	15.627	16.616	6,3
Iraungitako zergak	-307	-31	90,0
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	8.893.618	10.042.531	12,9
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	103.402	106.051	2,6
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	18.310.029	20.324.502	11,0

Iturria: Foru aldundiak.

Zeharkako zergei dagokienez, 10.042,5 milioi euro bildu ziren guztira, %12,9ko hazkundera, zerga figura gehienetan aurrerapenak eginez. BEZa %13,3 igo zen, familien gastu handiagoak eta merkataritzako eta zerbitzuetako eragiketen hazkundera bultzatuta. Zeharkako ondare-zergetan, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergak (%24,3) eta Egintza Juridiko Dokumentatuak (%18,8) ere hazkunde handia izan zuten, higiezinaren eta enpresen transakzioetan jarduera dinamikoagoa izan zelako, interes-tasa baxu eta egonkorrek lagunduta. Azkenik, Estatuarekiko

doikuntzei lotutako Zerga Berezien taldeak %9,1eko igoera izan zuen, hidrokarburoen portaera onagatik (%4,4) eta, batez ere, estatuarekiko % 12,3ko doikuntzagatik.

Arlo finantzarioa

2025eko azken zatia aldeko finantza-ingurune argi batean garatu zen. Inflazioa nabarmen moteldu zen 2022ko eta 2023ko gailurren aldean, eta merkatuek uste zuten interes tasak igotzeko zikloa amaitu zela. Europako Banku Zentralak %2,0ra eraman zuen gordailu-erraztasunaren tasa ekainetik, eta Erreserba Federalak, berriz, %3,50-3,75eko mailan jarduten zuen urtearen bigarren erdian aplikatutako murrizketen ondoren. Esparru horrek, prezioak moteltzen ari zirenen itxaropenarekin batera, finantza baldintzak lasaitzen eta arrisku-prima subiranoak oro har jaisten lagundu zuen.

Zehatzago esanda, errenta aldakorrak aurrerapen esanguratsuak eta zabalak izan zituen: IBEX 35ek 2025 urtea itxi zuen %48 inguruko hazkundearekin, enpresen emaitzen hobekuntzan oinarrituta; Eurostoxx-50ek %18tik gora egin zuen aurrera, eta AEBetako indizeek bide positiboa luzatu zuten, sektore teknologikoak bultzatuta. Asian, Nikkei 225a %28 inguruko igoerekin nabarmendu zen. Aldi berean, zor subiranoaren errentagarritasunak hazkunde neurritsuarekin bateragarriak ziren mailetan egonkortu ziren: hamar urterako bund alemaniarra %2tik gora zegoen, eta Espainiako bonua, berriz, %3tik ozta-ozta gora, periferiako arrisku-primak hamarkada bat baino gehiagoko minimoetan zeudela. Euroak dolarraren aldean balioa irabazi zuen, eta 1,17 dolar inguruko euroko bataz bestekoa izan zuen, euroguneko sendotasun erlatibo handiagoaren eta Fedek tasak EBZk baino arinago murriztuko zituenaren itxaropenean oinarrituta.

2026ko hasierak joera baikorrari eutsi zion. Urtarrilean, IBEX 35ek aurrerapenak pilatu zituen oraindik, eta Eurostoxx-50ek aldeko portaera erakutsi zuen; hamabi hilabeterako euriborra, berriz, %2,2 ingurukoa zen, aurreko urteko mailaren azpitik, argi eta garbi. Euro-dolarraren truke tasak 1,17 eta 1,18 artean jarraitzen zuen, eta arrisku-primak egonkor jarraitzen zuten, Espainiako bonuak %3,1 eta %3,2 artean jarraitzen baitzuen. Horrek guztiak normalizazio-prozesuaren jarraipena adierazten zuen: hazkunde moderatua, pixkanakako desinflazioa eta finantza merkatu erosoak oreka horrekin.

Egoera hori bat-batean aldatu zen otsailaren amaieran, Estatu Batuek eta Israelek Iranen aurkako erasoaldi bateratua hasi zutenean, eta horrek shock geopolitiko eta energetiko handia eragin zuen. Eskualdeko tentsio militarrek eta, batez ere, Ormuzeko itsasartea ixteko mehatxuak, petrolio eta gasaren munduko merkataritzaren zati handi bat bertatik baitabil,

petrolio gordinaren prezioa berehala igotzea eragin zuten; izan ere, upeleko prezioa 100 dolarretik gorakoa izatera iritsi zen, eta 120 dolarretik hurbil egon zen ziurgabetasun handieneko uneetan. Aldi berean, garraio kostuak eta itsas aseguruak garestitu ziren, eta gasaren, erregaien eta beste intsumo estrategiko batzuen prezioak nabarmen igo ziren. Konbinazio horrek inflazioaren gorakadaren beldurra berpiztu zuen, ziurgabetasuna areagotu zuen eta nazioarteko finantza-merkatuetako arriskuarekiko ezinikusia areagotu zuen. Patroi horrek merkatuen bilakaera baldintzatzen jarraitu du azken asteetan.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2024	2025	2025			2026		
			Urria	Azaro.	Abe.	Urtarr.	Otsail.	Martx.(**)
Interes tasa ofizialak (%)								
EBZ (*)	3,0	2,0	2,0	2,0	2,0	2,0	2,0	2,0
Erreserba Federala	4,25-4,5	3,75-3,5	3,75-4,0	3,75-4,0	3,75-3,5	3,75-3,5	3,75-3,5	3,75-3,5
Japoniako Bankua	0,25	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5
Ingalaterrako Bankua	4,75	3,75	4,0	4,0	3,75	3,75	3,75	3,75
Txinako Bank. Popul.	3,10	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0	3,0
Brasilgo Bank. Zentrala	12,25	15,0	15,0	15,0	15,0	15,0	15,0	15,0
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	70	43	51	49	43	37	41	55
Grezia	84	62	65	63	62	51	65	95
Portugal	48	30	39	37	30	36	36	50
Italia	116	65	74	72	65	62	63	97
AEB	219	129	146	134	129	140	131	136

(*) Gordailu tasa. (**) Datuak martxoaren 23ra arte.

Iturria: Espainiako Bankua.

Gainera, Estatu Batuetako presidentearen adierazpenek aldakortasuna areagotzen dute. Komunikazio bakoitzaren ondoren, petrolioan eta burtsetan berehalako mugimenduak izan ziren, martxoaren 23an gertatu zen bezala, erasoak gehiago atzeratuko zirela iragarri zenean, Brent upela 100 dolarretik behera kokatu baitzen martxoaren 11tik lehen aldiz. Hala ere, esku-hartze horien eragina denborarekin murriztu dela dirudi, eta merkatuek intentsitate txikiagoarekin erreakzionatzen dute, gatazkaren bilakaera materiala lehenetsiz adierazpen puntualen aurrean.

Testuinguru berri horretan, banku zentralekin eszenatokiak posibleak azkar berraztertu behar izan zituzten. Europako Banku Zentralak gordailu mota %2,0an mantendu zuen, baina Ekialde Hurbileko gerrak eta petrolioaren gorakadak 2026ko inflazioa abenduan aurreikusitakoa baino gehiago igoko zutela onartu zuen, %2,6 inguruan kokatuz, eta euroguneko hazkunde aurreikuspenak apur bat jaitsi zituen. Erreserba Federalak aldaketarik gabe eutsi zion fed fund-en maila objektiboari, baina hiru hamarren igo zuen 2026rako inflazio-aurreikuspena, %2,7ra arte, eta berretsi zuen tasen edozein murrizketa desinflazioaren sendotzearen mende egongo zela, energiaren presioa gorabehera. Ingalaterrako Bankuak %3,75ean jarraitu zuen, orekan ekonomia ahul bat babestearen eta inflazioari eustearen artean, eta Japoniako Bankuak, berriz, aurrera jarraitu zuen bere normalizazio-prozesu mailakatuan. Gorabidean dauden artean heterogeneotasunak jarraitu zuen; Brasilek tasa altuak mantendu zituen eta Txinak tonu zertxobait hedakorragoa.

Hasieran batean, zorra egonkor mantendu zen. 2026. Urtearen hasieran, hamar urterako bonu alemaniarraren errentagarritasuna %2,8-2,9 ingurukoa zen, eta Espainiako bonua, berriz, %3,2 baino pixka bat handiagoa, arrisku primak oinarritzko 40 puntu basiko (pb) inguru izanik. Gatazka piztu ondoren, errentagarritasunak gora egin zuen, baina neurriz. Bund-a %3,0 ingurukoa izan zen, eta Espainiako bonuak %3,5 gainditu zuen, prima 55 pb-ra igoz. Erreakzioa nabarmenagoa izan zen herrialde zorpetuenen epe luzeetarako zorrean, inflazioaren eta moneta politikaren itxaropenen berrikuspenetikiko sentikorrak baitira, eta Italiaren eta Portugalen arrisku sariak handitu egin ziren, 100era hurbildu eta 50pb baino gehiagora iritsi arte. Errenta finko globaleko zorroetan zuzenketa eta %2 inguruko galerak izan arren, merkatuak funtzionamendu ordenatuari eutsi zion, estres nabarmenaren zantzurik gabe.

Dibisen merkatuan, tentsio geopolitikoak lagundu egin zuen dolarrean babes bilatzeko mugimendua. 2025eko amaieran eta 2026ko martxoaren amaieran, euroa 1,171 dolarretik 1,155 dolarrera igaro zen unitate bakoitzeko, hau da, %1,4 inguruko balio-galera izan zen. Yenaren aldean, aldakuntza marjinala izan zen eta gurutzaketa egonkor mantendu zen 183 yen euro bakoitzeko, libera esterlinaren aldean oszilazioak moderatuak izan ziren bitartean. Oro har, dolarra izan zen babes aktibo nagusia arrisku globalaren pertzepzio handiagoko ingurune batean.

Burtsako merkatuek azkar islatu zuten egoera berria. 2026an maximo historikoetan hasitako indizeek zuzenketa esanguratsuak izan zituzten egun gutxitan. IBEX 35ek %7 inguruko irabazia zuen otsailaren amaieran, eta martxoaren amaieran %2,7 inguruko beherakada izan zuen, energiaren eta turismoaren sektoreak petrolioaren garestitzearekiko duen sentzibilitateak eta enpresen finantzaketa kostuari buruzko ziurgabetasunak markatutako ingurunean. Eurostoxx-50 ere tasa negatiboetara jaitsi zen. Estatu Batuetan, S&P 500 indizeak bi digituko irabaziak erregistratzen %5 inguru jaistera igaro zen, zikloari edo energia kostu handiei lotutako balioetan eragin sakonagoarekin. Asian, Nikkei 225ek eremu positiboan mantentzea lortu zuen

%1,3 inguruko irabaziarekin, urte honetan aurrerapenak izan dituzten indize urrien artean kokatuz.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2024	2025	2025			2026		
			Urria	Azaroa	Abe.	Urtarr.	Otsail.	Martx. (**)
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,082	1,171	1,163	1,156	1,171	1,174	1,182	1,155
Yena/euro	163,8	182,5	176,2	179,3	182,5	183,9	183,5	183,5
Libera esterlina/euro	0,847	0,880	0,872	0,880	0,880	0,875	0,868	0,864
€ efektibo nomin.(%)	98,4	102,3	102,1	102,0	102,3	101,8	101,8	100,6
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	14,8	48,1	38,3	41,2	48,1	4,1	6,9	-2,7
Eurostoxx-50	10,8	18,1	16,3	16,5	18,1	3,5	6,6	-4,4
Dow Jones	12,9	13,0	11,7	12,2	13,0	0,0	1,9	-5,2
Nikkei 225	19,2	27,2	28,7	26,0	27,2	5,1	16,0	1,3
Standard & Poors 500	23,3	16,4	16,0	16,4	16,4	1,4	-1,0	-5,0

(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilearen azken egunera arte. Datuak martxoaren 23ra arte.

Iturria: Espainiako Bankua eta Expansión.

Hipoteken arloan, INEren datuek erakusten dute 2025. urtea nabarmen hedakorra izan zela Euskadin. Ekitaldian zehar, etxebizitzaren gaineko 25.505 hipoteka eratu ziren, 2024an baino %22,5 gehiago, hau da, hazkundera izan da bigarren urtez jarraian, eta aurreko urteetako doikuntza-fasearen ondoren, merkatuaren susperraldia berretsi egin da. Hiruhilekoko bilakaera heterogeneoa izan zen: hipoteken kopuruak balio bereziki altuak lortu zituen lehen eta hirugarren hiruhilekoetan, eta laugarrenak, berriz, eragiketa berrien bolumenaren moderazioa ekarri zuen. Zenbatekoari dagokionez, hipoteka bakoitzeko batez besteko kapitala modu iraunkorrean igo zen, 162.000 euro pasatxotik hasi lehen hiruhilekoan eta 180.000 euro ingurura laugarrenean (azken hau serieko maximoa).

Hipoteka kredituaren bilakaera hori bat dator EAEko etxebizitza merkatuaren dinamismo handiarekin. Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren arabera, 2025ean 26.326 etxebizitza-salerosketa formalizatu ziren, 2024an baino %13,9 gehiago, eta bolumen handiena 2007tik, eskari iraunkorraren eta goranzko prezioen testuinguruan. Oro har, salerosketen eta hipoteken


datuek higiezinaren merkatu hedakor bat irudikatzen dute, transakzioen eta finantzaketa-bolumenaren aldi bereko igoerarekin.

Euriborraren bilakaera positiboak dinamika horri eusten lagundu zuen 2025ean. Hamabi hilabeterako euriborrak 2024ko bigarren erdian hasitako beheranzko joera luzatu zuen, eta urtarrilean %2,53 ingurukoa izatetik abenduan % 2,27koa izatera igaro zen. Horrek nolabaiteko lasaitua ematen jarraitu zuen hipoteka aldakorrak zituzten etxeetan, eta mailegu berriak xurgatzea erraztu zuen, nahiko baldintza egokietan. Testuinguru horretan, tasa finkoko hipotekek aukera nagusi gisa zuten posizioa finkatu zuten, eta osagai aldakorrak, oraindik minoritarioa izan arren, aurreko ekitaldietan baino karga txikiagoa zuen.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Batez besteko zenbatekoa (ezkerrean, milak)
hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Martxoko Euriborraren datua martxoaren 23ra arte batez bestekoa da.
Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hala ere, 2026an tentsio geopolitikoak eragindako eszena toki aldaketak ziurgabetasun elementu gehigarri bat sartzen du. Urteko lehen hilabeteetan, Euriborrak, hasiera batean, moderazio-bideari eutsi zion, eta otsaileko batez bestekoa %2,22koa izan zen, inflazioak gutxiago presionatutako Europako Banku Zentralaren pertzepzioak lagunduta. Martxotik aurrera, prezio energetikoen gorakadak eta tasen aurreikuspenen goranzko berrikuspenak aldaketa nabarmena eragin zuten: eguneko hainbat igoeraren ondoren, euriborra %2,74ra iritsi zen, martxoan behin behineko batez bestekoa %2,45ekoa izanik, 2025eko itxieraren aldean aldaketa nabarmena. Finantzaketaren garestitzearen eta etxebizitzaren prezio altuei eustearen konbinazio horrek arrazoizko zalantzak sortzen ditu hipoteka merkatuak 2026an aurreko urtean erakutsi zuen hazkunde erritmo berari eusteko duen ahalmenari buruz.

Aurreikuspenak

Merkataritza tentsioek baldintzatutako 2025 baten ondoren, lehen hiruhilekoan ziurgabetasuna asko handitu da, Ekialde Ertaineko gatazka piztu ondoren, Pertsiar Golkora, Mediterraneo ekialdera eta aire eta itsas ibilbide globaletara zabaldu dena. Petrolioaren eta gas natural likidotuaren munduko merkataritzaren %20 inguru mugitzen duen bidearen eteteak, esportatzaile handien azpiegituren aurkako erasoekin batera, energia-prezioak azkenaldiko maximoetara eramanez ditu, eta oraindik zalantzazkoa den krisia ireki da. Eragina prezio horien mailaren eta iraunkortasunaren arabera izango da; izan ere, eskari ez elastikoak dituzten merkatu globalak dira, eta disrupzio luze batek energia garestitzen du, baita eskualdetik zuzenean inportatzen ez duten ekonomietan ere. Gatazkaren igoera gehigarri batek edo iraupen luzeago batek are gehiago honda lezake energia-gaien trafikoa, eta, liskarrak areagotuz gero, baita manufacturena ere, Txinaren eta Europaren arteko merkataritza ibilbidean eragina izatekotan.

Ekialde Hurbileko gatazka 2025ean hasi zen, non ekonomia globalak uste baino erresilientzia handiagoa erakutsi zuen, etengabeko merkataritza-birnegoizazioen eta ezkutuko arrisku geopolitikoaren testuinguruan. NDFren arabera, munduko BPGa %3,3 inguru hazi izan zen, eta, gatazka piztu aurretik, erakundeak antzeko erritmoa aurreikusi zuen, apur bat txikiagoa bada ere, 2026 eta 2027rako, Estatu Batuen eta Asiaren inbertsio teknologikoan oinarrituta, merkataritza-ingurune murriztaileago baten ondorioak moteltzeko gai izango zena. Munduko merkataritzak, 2025ean eutsi egin ziona ondasun teknologikoaren dinamismoari esker, gainerako esportazioek aurrerapen txikia egin bazuten ere; 2026an AEBen politika protekzionistari erantzuteko akordioek menpe jarraituko du, eta horri, gatazka berriaren ondorioak gehitu beharko zaizkio. Nazioarteko Diru Funtsek aurreikusi zuen merkataritza globalaren hazkundea %4,1ekoa izango zela 2025ean, %2,6koa 2026an eta %3,1ekoa 2027an, baina aurreikuspen horiek beherantz berrikusiko dira berriro.

